

## **BOST GALDERA**

### **- Lan-esplotazioa ohiko edo tokian tokikoa?**

Eguno eredu ekonomikoa langileen esplotazioan oinarritzen da; esplotazioa kapitalaren mesedetan.

Sistemak hainbat osagai ditu esplotazio egoera sustatzen dutenak: malgutasuna, deslokalizazioa... Baina, funtsean, maila orokorrean, lan-esplotazioa legeztatzen eta iraunkor egitea gauzatzen duten kontzeptuak dira.

Joera **Glocal**-a dela esango nuke, tokian tokiko zehaztapenak dituen joera globala. Hau da, esplotazioa, maila globalean dago antolatua, eta Bretton Woods-eko instituzioek (Munduko Bankua eta Nazioarteko Diru Funtsa) antolatu eta anparatzen dute. Eta baita akordio ekonomikoko sistema guztiak, bide batez nazioarteko zuzenbide bihurtzen dutenak. Merkataritza libreko egiturek, Ipar-Hego merkataritza harremanek, herrialde txiroenen lan-esplotazioa gauzatzen dute. Sistema hau, kontinente, nazio edo eskualde mailan ere ematen da.

### **- Ba al dago lan-esplotazio gehiago ematen den sektorerik, edo joera orokorra da?**

Langileek lortu dituzten eskubideak, borroka latzei esker izan dira, eta gaur egun ere horretan jarraitzen dute. Arazo gehien dituen sektorea etxeko langileena da.

Indarrean dagoen legediak, beste langileekiko diskriminazio zantzu argiak erakusten ditu: langabezia prestazioa jasotzeko eskubiderik ez izatea, “enplegu-ematearen uzte” aukera, lan egindako urte bakoitzeko 12 eguneko kalte-ordainarekin...

Ohizkoan dira giza legezko diren egoera jasanezinak. Adibiderik onena etxeko langileek edo ‘internek’ pairatzen dutena da. Ustiapen-sistema baten osagaiak dira, sarri indarrean dauden legeek lagunduta.

Ostalaritzako sektoreak ere arreta berezia merezi du lanorduei dagokienez, gizarte-segurantzan alta ematen ari diren lan-orduak, egiaz egiten diren ordu kopuruaren oso azpitik egonaz... Hala ere, nire baitan, ez da sektore bakar baten kontua; eredu sozio-kulturalaren arazoa baizik.

**- Zein dira CARITAS GIPUZKOAKo zure bulegoan arlo honen inguruan gehien jasotzen dituzun eskaera/salaketak?**

Etxeko zerbitzuan eta ostalaritzan lan egiten duten pertsonak dira aholkularitza-eskaera gehien egiten dituztenak. Eta kasu gehienak, larritasun handiko esplotazio gaiak dira. Zaila da sistema bidegabe batek pertsona ahulen eskubideak errespetatzeko dinamikak izatea.

**- Etorkinek gehiago jasaten al dute lan-esplotazioa, edota, gaitz orokorra da?**

Hutsegitea litzateke migratzaileak bakarrik esplotatzen direla esatea. Lan-esplotazioa eredu sozio-ekonomiko antolatuan ageri da, eta gizarte eragileek oso barneratua dute. Bai eskubide gutxi batzuk urratzea normaltzat jotzen duen enpresariak, eta baita halabeharrezko bidesari bezala onartzen duen langileak ere.

Pertsona migratzaileek pairatu ditzaketen berezitasunak: ahultasunean plus bat, premi batzuk, eta betebeharrak gehigarri batzuk, indarrean dagoen legeriak ezartzen dituenak.

Atzerritarrek, bertakoek baino betebeharrak gehiago dituzte: dokumentazioa lortzeko urte beteko lan-kontratua behar da. Lan baimen hori berritzeko sei hilabete kotizatu behar dute gutxien-gutxienez, eta lan kontratu bat indarrean izan. Bi tramite horietan nagusiak zenbait dokumentu erraztu behar ditu (diru sarrerak, etab.). Hori dela eta atzerriko langileek goiari eutsi behar diote, edota nagusia pozik izan, dokumentazioa berritzeko arazorik ez izateko. Enplegatzaile batzuk, egoera honetaz baliatuz, lan-baldintza okerragoak edo eskubideen konfiskazioa dakarten baldintzak eskaintzeko legitimatuak sentitzen dira, eta halere, migratzaileei zaila egiten zaie ez onartzea.

**- Zer egin beharko genuke esplotazio egoera baten susmoa dugunean?**

Lege-gaiak dira eta pertsonen eskubideez ari gara hitz egiten. Gizarte justuago eta berdintasunezkoagoa nola eraiki pentsatzen aritu beharko genuke. Eta horretarako dagozkigun eskubideak eskatzeko kontzientzia kolektibo bat sortu beharko litzateke, hots, gainontzekoen eskubideak errespetatuz, eta gure betebeharrak asez.

Gure jarduteko modua, langileari egoera berrezartzen konbentzitzen saiatzea da, langileari legez dagokiona jaso dezan. Akordioa lortzeko aukerarik ez badago, antolamendu juridikoak langileari ematen dizkion aukerak daude: lan-ikuskapena, alor sozialeko jurisdikzioa...